

Donibaneko II. udako euskal unibertsitateaz

Euskara finkatzeko eta indartzeko ematen ari diren urraisen artean, ez dateke motelena zientzi gaietan ematen ari dena.

Ikastetxe nagusietan (Unibertsitateko fakultateetan, Inginadore Eskoietan eta abar), Euskal Kultur Taldeak sortzen, bizkortzen eta indartzen ari dira. Berauetan, hainbat gazte sutsu dago, lan egiteko asmoz. Euskaltzalasunean irauten badute, urte batzuk barru, hainbat zientzigizon eta teknikari egonen da, euskaraz lan egiteko prest.

Espero ditzakegun fruituen iragarle bezala, lehen euskal zientzi aldizkaria sortua da. Denon artean eduki eta haziko dugulako esperantzan, bertan edonolako zientzi lanak euskaraz irakurri ahal ukanen ditugula esan dezakegu.

Izatez, jadanik zenbait lan egin izan da zientzi arloan. Eta bestelako lanetarako interesgarri izan daitekeelakoan, Donostiko EKT taldekoek eginiko hitz teknikoan bilduma aipatu behar dugu. Dudarik gabe, aurretik eginak diren lanetan oinharritu behar ditugu geure lanak; eta horretarako, lan hori guztiz lagungarri da, zeren zientzi alorrean euskaraz eginiko lanetatiko hitz gehienak agertzen baitira bertan.

Ekintza hauen guztion artean, besteen katalizatzaile izan daitekeen bat dugu: Udako Euskal Unibertsitatea. I hazkoa bigarren urtea izan delarik, eman diren pausoen azterketa egitea komeni da, modu honetan, bete gabe geratzen diren hutsuneak ezagutzeko, hurrengo urtean berauk beteaz joateko.

Has gaitezen emaniko urratsekin. Prestatu eta bururatu ziren hitzaldi eta mintegietan, ondoko gaiak erabili ziren: Fisika (eta bertan Mekanika,

Elektrika eta Hidrostatika), Kimika, Matematika, Informatika, Ekonomia, Satsuduraren problema eta Lantegietan erabiltzen den euskara. Hauetan guztiotan, orain arte egindako esperientziak eta erabilitako hiztegiak aztertuta izan ziren. Hitzaldi eta mintegietan indar izkutu baten eragina sentitzen zen: batasunarena. Azterketetan, elkar hizketan oinharrituz, batasunerako egokien ziratekeen formak bilatzera saiatu izan ginen.

Izan ziren zenbait hutsune, bai jendearen parte hartzearen alderditik, eta bai erabilitako gaien alderditik begiraturik. Puntu hauek banan banan aztertzea merezi dute.

Zientzi alorreko hitzaldi eta mintegietara ez zen jendetza handiegirik bildu. Egia da, ezen zenbait unibertsitarik parte hartu zuela; baina ez zen ia ikusi, ikastoletan diharduen irakaslerik. Zergatik? Gaiak interesgarri ez zirelako ote? Ene eritziz, ez zen horixe izan horren arrazoina, gaiak guztiz interesgarri (eta beharrezko) baitziren haientzat. Horren zergatikoa beste nonbait aurkitu behar da. Geroago ikusi dudak legez, irakasle batzuek beldur pixka bat zioten Unibertsitateari, bertan aztertzeke ziren gaiak, goi maila batetan aztertuko zirela pentsatzen zuten eta. Gauzak horrela, ez ziren bertara joan.

Gaien aldetik, zenbait alor ukitu gabe geratu ziren. Hauen artean, Medikutza, Geologia, Biologia eta beste. Biologiari buruz, antolatzaileek zenbait eraturik zedukaten, baina azken orduko eragozpenengatik, ezin ahal izan zen programa hori aurrera eraman. Ea datorren urtean hutsuneok betetzen diren.

Dena dela, parte hartu genuenontzat, oso onuragarri izan zen. Batetatik, Unibertsitateak sendotu egin ditu gure arteko harremanak, eta bestetatik, zenbait erabaki hartu eta zenbait asmo mamitu ukan genuen bertan, geroari begira.

Ikusi genuen legez, Unibertsitatea ez da bukatu behar, Donibanen astebitan barrena egiten ditugun lanekin. Unibertsitatea urtean barrena egiten ditugun lanetaz osatu behar da.

Bestalde, Unibertsitatean egiten diren lanak, ez dira guti batzuren eskuetan geratu behar; zabaldu, eta ezagutzera eman behar dira, ahalik eta euskaldun gehienengana hel daitezen. Horretarako, badira urtean zehar landu behar diren sail bi: artikulugintza eta liburugintza. Artikuluak eta liburuen laguntzaz, Unibertsitatean aurreratu diren puntuak, Herriaren eskuetara helerazi behar dira. Honela, hango aurrerakuntzak hizkuntza biziaren barnean sartuko eta tinkotuko dira.

Bide horretatik abiatuz, erabaki bat hartu genuen Jakin taldekoekin batera: Fisika eta kimika alorretako hiztegi bat prestatzea. Lana aurrerantz doa, eta gerorako urrats garrantzitsua izan daitekeelakoan gaude.

Azken egunean, aurtengo hutsuneak betetzeko asmoz, elkar hizketa sakona ukan genuen, datorren urteko Unibertsitatearen antolaketari buruz. Unibertsitateak bi helburu nagusi ukan behar dituela ikusi ukan genuen. Batetik, ikerkuntzan saiaturik, ikertzapen berriak egitera bultzatu behar gaitu, eta gure kasuan, euskararen erabiltzeari berebiziko bultzada eman behar dio. Bestetik, ikertzapen eta aurrerapen horien berri eman behar digu euskaldun guztioi, honela geure ikasketetan euskal arloan ukan ditugun hutsuneak betetzera laguntzeko.

Horregatik guztiorregatik, datorren urteko zientzi alorreko hitzaldiak eta mintegiak bi mailatan antolatzea pentsatu ukan genuen. Lehen maila, euskaldun guztiei eta bereziki ikastolako irakasleei zuzendua. Bertan, euskararen aldetik zientzi alorrean egin diren lanak azalduko lirateke, modu honetan, irakasleak zientzien oinharrizko printzipioak eta gaiak euskaraz azaltzeko eta erabiltzeko gaituz. Bigarren maila, ikerkuntz lanak aurrera cramateko pentsaturik legoke. Eta hemen ikerkuntza hitza, bai euskararen aldetik eta bai zientziaren aldetik kontsideraturik. Bigarren maila honetan, Unibertsitate mailako ikasgai berezien azalpena ere sartuko litzateke.

Ni neu, hau guztiau ikusirik, baikor sentitzen naiz etorkizunaren aurrean. Egindako lanek frogatu duten bezala, euskaraz zientzi gaiak lantzeko, ez dago gaindi ezinezko oztoporik. Eta ez hori soilik: Bada hornetaz lan egiteko prest dagoen jenderik. Beste askok, euskaraz ez dela hitz egokirik, ez ditugula egitura egokirik, eta honen antzeko gauzak esanik, erdarara jotzen du zientzi alorrean. Eta egia da, lehen batetan ia hutsetik hastea nahiko gogorra dela. Baina ikusten den legez, egin ahal den gauza bat da. Beraz, dagigun.

J. R. Etxebarria